

PRENTSARAKO OHARRA

18/10/01

Nazinoarteko ekintzailtza zentroak mobikortasunean, energian eta *food* munduan espezializatea aurreikusten dau

Une honetatik aurrera Bizkaia torrea izango danean Bizkaiko Foru Aldundiak zabaldu gura dauen ekintzailtzarako nazinoarteko zentroak hiru arlo handitan oinarritutako espezializazioa eukiko dau: mobikortasuna, energiaren mundua eta elektrizitatea eta, bukatzeko, *food* mundua. Halanda be, Foru Aldundiaren asmoen artean Big Data izenekoa eta datuen kudeaketea espezializazio guztien zeharkako elementu bilakatzea dago.

Talde Mistoak planteautako eskari bati erantzunez batzordera etorri dan Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak, zentroa “egungo ekosistemaren aldatzaile” moduan jardungo duen “asmo handiko egitasmoa” dala esan dau. Zehaztu dauenez, “ekosistemaren bultzada” hori, hiru palankak aktibetan diranean izango da posible.

Beste ezer baino lehen, kontzentrazioarena. Aldundiko arduradunak esan dauenez, klabeetako bat, enpresa sortu barriak, ekintzailtzaren arloko adituak eta haztegiak dituen unibersidadeko zentroak, beste batzuen artean, esfortzuak kontzentratea da. “Esfortzu horreek kontzentratea, nazinoarte mailan ondo ezagutuko eta ikusiko dan masa kritikoa batuko dauen leku batean batzea, zentro horren esparruan pausu bat emoteko klabea da”, azaldu dau.

Eta, bigarren, komunitadearen palanke, “kontzentrazioaren ondorioz komunitade ekintzailea sortzen da”.

Eta, hirugarren lekuan, nazinoarteko konektibitatea. Boston, Tel Aviv eta Helsinki dira Aldundiak konektauta egon gura dauen –edo dauen– nazinoarteko ekosistemetako batzuk.

Imanol Pradalesek adierazo dauenez, une honetan “apurka-apurka pauso sendoak emoten ari diran puntuan” dagoz. Aldundia lehiaketa publikoa diseinetan dabil “holango zentroen kudeaketaren dinamizazioan adituak diranak erakarteko”. Aurreikuspenak beteten badira, urtarrilean kaleratuko da.

Diputatuaren azalpenen ostean, Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak “esfortzuen kontzentrazioa” nabarmendu dau batez be. “Harrituta nago eragileen aniztasuna ikusita; garrantzitsua izango litzateke ahalik eta gehien koordinetea, holango proiektuak paraleloan joan daitezcan, eta, alkarren kontra lehiatu beharrean, lankidetzan aritu daitezcan”, adierazo dau.

“Proiektua berde samar dagola iruditu jaku”, adierazo dau Jesús Isasi batzordekide popularrak. Bere esku hartzean, starstup izenekoaren ganean hartuko diran neurri fiskalen

ganeko interesa be erakutsi dau. Holan, Pradalesek argitu dauenez, “2018ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dagozan zenbait pizgarri fiskal onetsi ziran”.

Podemos Bizkaiatik, Josean Elgezabal batzordekideak beste palanka bi gehitzea proponidu dau: giza eta lan eskubideakaz eta bardintasunagaz lotutako erespideak, eta jarraikortasuna. Joseba Gezuraga EH Bilduko batzordekideak, bere aldetik, aurrerantzean BEAZek beteko dauen lekuaren ganeko interesa erakutsi dau. Foru Diputatuak argitu dauenez, BEAZek “orain arte bete dauena baino leku garrantzitsuagoa beteko dau”, “Bizkaiko ekosistemaren dinamizatzaile nagusia” dalako.

Euskal Sozialistak taldearen aldetik, Josu Montalban batzordekideak bere babesa erakutsi deutso Foru Aldundiari: “Gehienetan, Aldundiak porrotak baino arrakasta gehiago lortu ditu holango ekimenetan, eta oraingo honetan be gauza bera gertatzea gurako geunke”. Modu berean egin dau berba Irene Edesa jeltzaleak: “Zalantza barik uste dogu ekintzailtzarako nazinoarteko zentroa, Bizkaiko herritar guztientzat oso ondorio positiboak izango dituan, enpresa gehiago sortzen lagunduko dauen eta Lurraldearen izaera barritzailea indartuko dauen proiektu handia dala”.

BESTE EKITALDI BAT 2019KO UDAGOIENEAN

Horrez gain, eta Talde Mistoari erantzunez, Imanol Pradales Foru Diputatuak esan dau Foru Aldundia, The World's 50 Best Restaurants ekitaldiaren antolatzaileakaz lankidetzan, 2019ko udagoienez Bizkaian egingo dan beste ekitaldi bat ari dala diseinetan. Proposamen hori, urte honetako bagilean gastronomiaren Oscar sarietan lortutako “emaitza bikainak” dirala eta sortu da.

BIDEGORRIA EZKERRALDEAN

Eguneko gai zerrendari bukaerea emoteko, Aldundiko ordezkariak EH Bilduk Ezkerraldeko bidegorriaren ganean egindako ahozko erantzun-eskeari erantzun deutso. Hasteko, Pradalesek esan dau Aldundiaren eskumenetan dagon tarte bakarra Zierbenatik Santurtzira doana dala (3,1 km). Gaur egun Foru Aldundiak eraikuntza proiektua onetsita dauka, eta lankidetzarako hitzarmena ari da tramitetan Zierbenako eta Santurtziko Udalakaz. Horrez gain, esan dauenez, lanak datorren urtean hasiko dira, eta aurreikusitako inbertsinoa 1.244.000 eurokoa izango da.

NOTA DE PRENSA

01/10/18

El centro de emprendimiento internacional tiene previsto especializarse en las áreas de movilidad, energía y el mundo *food*

El centro internacional de emprendimiento que la Diputación Foral de Bizkaia prevé abrir en lo que a partir de ahora será la torre Bizkaia, tendrá una especialización en torno a tres grandes áreas: la movilidad, el mundo energético y la electricidad, y por último, el mundo *food*. No obstante, desde la Diputación Foral tienen intención de que el Big Data y la gestión de datos sea un elemento transversal al conjunto de especializaciones.

El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, que ha comparecido en respuesta a una solicitud planteada por el Grupo Mixto, ha definido este centro como “proyecto más que ambicioso” que actúa como “transformador del ecosistema actual”. Como ha detallado, este “impulso del ecosistema” es posible una vez se activan tres palancas.

En primer lugar la de la concentración. El responsable foral ha manifestado que una de las claves es que las empresas de nueva creación, expertos en el ámbito del emprendimiento y centros universitarios con viveros, entre otros, logren concentrar esfuerzos. “Concentrar esos esfuerzos, acumularlos en un espacio que reúna masa crítica reconocible y visible a nivel internacional, es la clave para dar un paso en el ámbito de este centro”, ha explicado.

En segundo lugar, la palanca de la comunidad: “Fruto de la concentración se genera una comunidad emprendedora”.

Y en tercer lugar, la conectividad internacional. Boston, Tel Aviv y Helsinki son algunos de los ecosistemas internacionales a los que la Diputación aspira estar – o incluso ya está– conectado.

Imanol Pradales han manifestado que actualmente están “en el punto de ir dando poco a poco pasos sólidos”. La Diputación se encuentra diseñando un concurso público “para poder contar con gente experta en la dinamización de la gestión de este tipo de centros”, que previsiblemente lanzarán en enero.

Tras las explicaciones del Diputado, el portavoz del Grupo Mixto Arturo Aldecoa ha incidido especialmente en la “concentración de esfuerzos”. “Me sorprende la multiplicidad de agentes; sería importante que se coordinaran en lo posible para que este tipo de proyectos marchen en paralelo y no compitan, que colaboren”, ha manifestado.

“Nos ha parecido que el proyecto está un poquito fresco”, ha declarado el apoderado popular Jesús Isasi. En su intervención también se ha interesado sobre las medidas fiscales que se adoptaran respecto a las starstups. En este sentido Pradales ha aclarado que “ya se aprobaron un conjunto de incentivos fiscales que están en vigor desde el 1 de enero de 2018”.

Desde Podemos Bizkaia, el apoderado Josean Elgezabal ha propuesto añadir dos palancas más: los criterios ligados con los derechos humanos, laborales y referentes a la igualdad, y la continuidad. Por su parte, el juntero de EH Bildu Joseba Gezuraga se ha interesado, entre otras cosas, por el papel que jugará de ahora en adelante BEAZ. El Diputado Foral ha asegurado que BEAZ “va a jugar un papel más relevante que el que ha jugado hasta la fecha” ya que es “el gran dinamizador del ecosistema vizcaíno”.

Por parte de Socialistas Vascos, el apoderado Josu Montalban ha mostrado su apoyo a la Diputación Foral: “Normalmente la Diputación se ha caracterizado más por los éxitos que por los fracasos en este tipo de empeños, y esperamos que en esta ocasión se repita la norma”. En la misma línea ha intervenido la nacionalista Irene Edesa: “Creemos sin duda que el centro internacional de emprendimiento es un gran proyecto que tendrá efectos muy positivos para toda la ciudadanía vizcaína, que contribuirá a generar más empresas y que va a reforzar el carácter innovador del Territorio”.

NUEVO EVENTO EN OTOÑO DE 2019

Asimismo, y en respuesta al Grupo Mixto, el Diputado Foral Imanol Pradales ha anunciado que la Diputación Foral se encuentra diseñando, de la mano de la organización de The World's 50 Best Restaurants, un nuevo certamen que tendrá lugar en Bizkaia en otoño de 2019. Una propuesta que viene como consecuencia de los “excelentes resultados” logrados gracias a la celebración en junio de este año de los óscar de la gastronomía.

BIDEGORRI EN EZKERRALDEA

El responsable foral ha cerrado el orden del día respondiendo una pregunta oral de EH Bildu sobre el bidegorri de Ezkerraldea. Pradales ha comenzado aclarando que únicamente es competencia foral el tramo que discurre desde Zierbena hasta Santurtzi (equivalente a 3,1 km). Actualmente la Diputación Foral ya cuenta con proyecto constructivo aprobado y se encuentra tramitando el convenio de colaboración con los ayuntamientos de Zierbana y Santurtzi. Asimismo, ha manifestado que las obras comenzarán el año que viene y tendrán una inversión prevista de 1.244.000 euros.